



abagune 'une aproposa, aukera'	«...zuek denok On Lorentzo garbitzeko abagune ezin hobea zenutela ikusi nuen.»	(118)
aburu 'ustea, iritzia'	«—On puska bat nire aburuz .»	(86)
adeitsuki 'gizalegez, jendetasunez'	«—esan zuen total baina irribarretsu eta adeitsuki Galarretak (...).»	(33)
adur 'zoria, halabeharra'	«Gizonaren bizia adurraren eskuetan zegoela zirudien.»	(47)
ahalketu 'lotsatu, kikildu'	«Goialde guztiak zurezkoak zituen bizitegi haundia zen neska- mearena, jasadako ezbeharrez ahalketua eta zaharkitua, agian.»	(51)
aihen 'landare kimua, adar gaztea'	«Astalarrosak eta huntzosto aihenak jostalari burnietan gora igotzen ziren...»	(41)
aiurri 'izaera'	«On Lorentzo aiurri onekoa zela esan nahi dut.»	(67)
aldarte 'umorea'	«...heriotzeak eta beste istiluek ez zioten kentzen ez aldarte ona ez eta jateko gogoa ere.»	(43)
amoltsu 'maitakorra'	«Bestela, benetan, amoltsu eta oso jendartekoa da.»	(96)
arestian 'oraintsu, berriki'	«Nik eta arestian ikusi duzun neskame horrek baino lan gehiago egiten du berak bakarrik.»	(16)
arra 'eskubarruaren neurria'	«...galdetu zuen ostalariak, bi arrako belarriak luzatuz.»	(99)
arro 'ibarra, harana'	«Ezkerreko aldera arroak , amildegia eta ibaiaren kantu goibelak.»	(12)
asperkunde 'mendekua'	«— Asperkundeagatik? —galdetu zuen ostalariak harrিতuta.»	(124)
asun 'basalandare bat'	«—Ikusten al dituzu asunez eginda bezalako bixika tiki hauek?»)»	(54)
auhengarri 'negargarria, penagarria'	«Haur jaio berria hiltzen denean bezalako iluntasun itun, hits, auhengarriak betetzen zuen herrixka.»	(49)
bana-banako 'bikaina, aparta'	«Bazkaria bana-banakoa izan zen.»	(43)
banaiz-eznaiz 'duda-mudatan'	«Lore Arribillaga banaiz-eznaiz gelditu zen galdera hartaz.»	(38)
barrandan egon 'zelatan egon'	«Ostalaria ezezik, katuak ere gure barrandan egongo direla uste diat nik.»	(61)
bebarru 'sarrera, ezkaratza'	« Bebarruko atea irekita zegoen. Holako zabarkeria!»	(51)
begirasun 'begikunea, espresioa, adikunea'	«Bazuen ostalariak bihotza irabazten zizun begirasun xalo, garbi eta ustekorra.»	(14)
begiratu 'zaindu, gorde'	«Hartara ordu edo egun luzez lanean alferrik ihardutzetik begiratuko nauzue.»	(92)
bekosko 'bekokiaren zimurdura'	«Denek zuten betoskoa , elkarrekin haserre bailiran.»	(19)
beltzuri 'bekoskoa, atsekabezko keinua'	«Emakumeak malkoak xukatu eta kalera irten zen etsipenezko beltzuriarekin .»	(30)
benazki 'benetan, seriocki'	«...gero burua gora jaso eta benazki hasi zen hizketan.»	(133)



berantetsi 'berandu iritzi'	«Izan ere, diru premiatan dagoenak oso berantetsi ohi du berezko herioa.»	(110)
berriki 'orain dela gutxi'	« Berriki ahizpa bakarra hil zaizu eta zorrak besterik ez dizu utzi...»	(112)
bihozkiro 'maitakiro'	«Ostalariak, hala ere, detektibea ikusi eta batera, bihozkiro agurtu zuen.»	(43)
bixika 'urbatua, baba txikia'	«—Ikusten al dituzu asunez eginda bezalako bixika tiki hauek?»	(54)
brastadakoan 'berehalakoan, kolpera'	«Detektibea ikusi eta jaiki egin zen brastadakoan .»	(81)
buru-belarri 'gogotik, jo eta ke'	«Bidartek buru-belarri irakurri zituen garbitasun guztiak.»	(47)
buruaz beste egin 'burua hil'	«Hau aurkitu eta gero, ordea, bere buruaz beste egin zuela pentsatzen hasianauk.»	(60)
dolu 'jantzi beltza'	«Kalean doluz jantzitako emakume zahar bati herriko ostatuez galde egin zion.»	(13)
ediren 'aurkitu'	«—Gaixoa larrialdian edireiten zen, nonbait.»	(82)
eguteran 'eguzkiak jotako aldean'	«Aurpegiak Leitzako bide alderantz ematen zuen, eguteran .»	(51)
elebide 'hizpidea'	«—Bai, zeuk ez badidazu elebidea galerazten, askoz lehenago amaituko dut, Galarreta maitea.»	(112)
eleontzi 'berritsua, hitzontzia'	«Eta han hasi zen argibide luzeak ematen, eleontzi .»	(82)
esku-lilurakari 'aztia'	«—Ez pentsa, gero, nik gauzak eta herioen hariak esku-lilurakari bezala neure jakako sakeletik ateratzen ditudanik.»	(108)
estakuru 'aitzakia'	«Jakina, estakuru argala da hau, ordu bete nahikoa baitzuten On Lorentzo garbitu eta berriz ere Donostiara itzultzeko.»	(119)
ezordu 'ordu edo garai desegokia'	«Ez zen atsegin, mutilak, ezordu haietan holako ibilaldia egitea.»	(12)
gaindegi 'gailurra, mendi gainaldea'	«Bidart gaindegietan bizkarrez bizkar gogoeta hauek erabili eta azkenean Karreto eta Artantsu baserrietan barna herrira jaitsi zen.»	(78)
galerazi 'eragotzi, oztopatu'	«...gaizkileen zakurkeriak galerazten oso trebea zarena.»	(9)
galtzarpe 'besapea, besazpia'	«Nebak galtzarpetik maitekiro heldu eta biak atera hurbildu ziren.»	(128)
gandu 'behelainoa'	«Bere harri landu belztuak gaueko ilunetan urtzen ziren, misteriozko ganduetan .»	(13)
gartsuki 'gogo beroz'	«—Ederki, Dionisio, ederki —goraldu zuen gartsuki detek- tibeak—.»	(62)
gero eta gero ere 'azken batean'	« Gero eta gero ere hau ez da inorentzat ezkutukirik.»	(72)
gizalege 'adeitasuna, kunplimendua'	« Gizalege haundia erakusten zuten hitzez detektibea agurtu eta besterik gabe alde egin zuen urrats pausatu, airosoekin.»	(15)
gogarako 'gustukoa'	«Neskame gazte batek ekarri zion afaria gogarako izan zitzaion Bidarti.»	(15)
gogoanbehar 'susmoa'	«Denak elkarren gogoanbeharretan zeudela ematen zuen.»	(43)



goratzarre 'omena, laudorioa, goralpena'	«...adierazi zuen Galarretak, sendagilearen buruargitasunari gora- tzarre eginez.»	(136)
haizatu 'urrundu, ezabatu'	«...bota zion alaikiro Bidartek ostalariari, haren bekokitik iluna haizatu nahirik.»	(19)
handitsu 'zaldarra'	«Ipurdian handitsua irazitako burdina goria sartu izan baliote, ez zukeen On Landerrek jauzi biziagorik egingo.»	(111)
haraindiko 'bestaldekoa, haragokoa'	«...bere begien dizdira beltz eta hondargabeak areago ematen zion une hartan herioaz haraindiko itxura.»	(91)
harraskakoa egin 'ontziak garbitu'	«Bazkalondoan harraskakoa egin , gauzak txukundu eta beti bezala agur egin nion.»	(29)
hartukizun 'parte hartzea, zerikusia'	«Zer hartukizun du On Landerrek herio honekin?»	(132)
haundieritzi 'buruiritzia, harropuzkeria'	«Horrelakoa izan zitekeen bere neba ere, haundieritziak galdu izan ez balu.»	(68)
hausnartu 'gogoan erabili, aztertu'	«Detektibea kalera irten eta azken gorabeherak hausnartzen hasi zen.»	(41)
hazpegi 'aurpegiko ezaugarria'	«Detektibeari, ordea, haren hazpegi eta jantzi guztiek baino zarrazta handiagoa egin zion (...).»	(27)
haztamuka 'ukimenaz baliatuz ibili'	«—Jakina. Ilunpetan haztamuka ibili ohi gara.»	(67)
higitu 'mugitu'	«Emakumea ez zen higitu .»	(52)
hilburuko 'testamentua'	«—Non da hilburuko hori?»	(35)
hits 'tristea, grisa'	«...iluntasun itun, hits , auhengarriak betetzen zuen herrixka.»	(49)
hizpidean egon 'zuzen egon, arrazoi izan'	«— Hizpidean hago, Jon.»	(62)
hortzargi 'begikoa, aurpegi alaia'	«...ezpainetan etengabeko irriñoa zuen gizon garai, sendo, hortzargi , hiztun hark.»	(14)
huntzosto 'huntza, aihen-belarra'	«Astarrosak eta huntzosto aihenak jostalari burnietan gora igotzen ziren...»	(41)
ilarraindu 'harropuztu'	«Galarreta erabat ilarraindu zen osterako honekin eta indar haundiagoz oldartu zitzaion detektibeari.»	(59)
ilenti 'egur zati erdi errea'	«Ipurpean ilentiak zituela ematen zuen.»	(59)
inarrosi 'astindu, zirraratu'	«Ikuspegi hark haizeak astindutako hosto bat bezala inarrosi zuen detektibea alderen beste.»	(52)
ipurterre 'pirria, petrala'	«Bai, Galarreta zen, edanari emana balitz bezala, Tuterako piperrak baino gorriago, berritsu eta ipurterre ...»	(21)
iratxeki 'gaineratu, erantsi'	«Hizketan lotsati samar agertzen zen eta izu horrek edertasun pitin bat iratxekitzen zion.»	(34)
iratxo 'personaia mitologikoa'	«... iratxo zaharren aztarnak gordetzen dituzten baso, leize eta mendi tontorrek.»	(45)
irriño 'irribarrea'	«Galarretak irriño biguna nabaritu zuen anderearen begietan.»	(34)
isats 'buztana'	«Goizean hildako txahalaren isatsa gisatua jango duzu...»	(15)



isilmisilgabeko 'sekreturik gabekoa'	«Gizon arrunta eta isilmisilgabekoa zirudien.»	(77)
itun 'tristea, iluna'	«...iluntasun itun , hits, auhengarriak betetzen zuen herrixka.»	(49)
itzain 'idiak zaintzen dituen'	«...haur itzaina bera baino ez dakit zenbat bider handiagoa den idia akulatzen.»	(61)
itzalgaitz 'mesfidantza, susmo txarra'	«Hori baino askoz astunago, ordea, jendearen artean ikusten duzun itzalgaitza da.»	(85)
itzurpide 'ihespidea'	«...gelako iheszuloa itxi eta itzurpiderik gabe dagoen arratoi baten gisa.»	(37)
jaidura 'grina'	« Jaidura bizikoa da, zinez.»	(16)
joanak joan 'gertatua ahaztu'	« Joanak joan eta gertatutakoa gertatu.»	(28)
kirio 'nerbioa'	«Detektibearen kirioak zutik jarri ziren.»	(19)
kliskaldi 'biztualdia'	«Hiru argi kliskaldi egin, bazter guztiak arakatu begi artega- tsuez...»	(13)
kontakatilu 'nonzebarria, zarpisuetea'	« Kontakatilu izateko belarri erne izan behar lehenbizi.»	(61)
kordokatu 'asaldatu, eskandalizatu'	«—Ez, ez, inola ere ez—, esan zuen gaisozainak kordokatuta , biraoa entzun izan balu bezala.»	(88)
kuxkuxean 'zelatan, ezkutuan'	«—Zer ari zara hemen kuxkuxean guri entzuten?»	(61)
larderiatsu 'izugarri, itzel'	«Harrizko eraikuntza haundi larderiatsua duzue, arkupe eta guzti.»	(66)
lauso 'bustia, lurruneztatua'	«Alkatea begi lausoekin lurrera begira gelditu zen.»	(116)
liskar 'borroka, bortxa'	«—Bietara gerta zitekeen. Hemen ez da liskarraren edo bestela gogoz kontra edan duen seinalerik.»	(54)
luzetsi 'luze edo berandu iritzi'	«Oso luzetsi zuen ilunetan eta ezjakinean igarotako ordu hura.»	(13)
madura 'lur zingiratsua, padura'	«...Urumeako madurak ikusteko aukera egokia izan zuen.»	(45)
mailuko 'aldaba'	« Mailukoa danga-danga bi bider jo. Erantzunik ez.»	(51)
mainontzi 'petrala, negartia'	«On Lorentzo haur mainontzia bezala tratatzen zuen.»	(87)
maritxukeria 'biguinkeria, emak. manerak'	«Gizon haren maritxukeriak edonor nazkatzeko adinak baziren.»	(46)
marrantatu 'erlastu, eztarria laztu'	«...bat-batean zintzurra marrantatu egin izan balitzaio bezala—.»	(100)
maxioka 'txantxetan, burlaka'	«—Ez, ez nabil maxioka . Oso pozten naiz zu ezagutuz.»	(66)
mazal 'atsegina, ezitia'	«Emakume mazala zen. On hutsa.»	(67)
mehargune 'toki estuagoa'	«Ibaiaren kantuak eta meharguneak aurretik entzun-ikusi egiten zituen bere irudimenean.»	(47)



mehartu 'estutu, zabalera galdu'	«Bidea mehartuz eta zorua gaizkituz zihoan.»	(12)
mendu 'izaera, nortasun'	«Gainera, nik uste, zure baitan ikusten dudan gauzarik ederrena ahantzi duzu: zeure mendu alai eta atsegina...»	(17)
minduri 'erostari, intzirika'	«Emakumea berriz ere malko jarrio eta minduri .»	(29)
mintxuri 'zorabioa'	«Bat-batean, ordea, mintxuriak jota, arreba amildu egin zen konorterik gabe.»	(128)
motots 'ile korapilo (moño)'	«Ilea nahiko harro zeraman eta belarrondoetan holako motots biribil batean bilduta.»	(84)
moztaka 'txikia, txaparroa'	«...betaurrekoak erabiltzen zituen emakume moztaka , potol, itsuska hari.»	(34)
mugonez 'garaiz, egokiro'	« Mugonez jokatu beharra zegoen, inoren susmo txarrik eraiki gabe.»	(118)
mutil 'trebea, jaioa'	«Holako hitz labanak esaten, mutila Galarreta.»	(38)
mutxurdin 'neskazaharra'	«Hori ere neskazahar edo, hobe esanda, ezkongai, oraindik ez baita horren mutxurdin .»	(70)
nahikunde 'apeta, guraria'	«Berarekin sartzen ez zirenak eta bere nahikundeetara moldatzen zirenak onezkoetan bizi izaten ziren harekin.»	(67)
nare 'lasaia, barea'	«—Bai, bai, ulertzen zaituztet, andereñook— esan zuen nare -nare detektibeak...»	(93)
ohategi 'ohetokia, logela'	«Eginkizun hura bete eta ostalariak ohategi tiki, txukun polit batera lagundu zuen.»	(17)
oldartu 'eraso, esetsi'	«Galarreta erabat ilarraindu zen osterako honekin eta indar haundiagoz oldartu zitzaion detektibeari.»	(59)
oldozpen 'gogoeta, pentsamendua'	«Beste oldozpenik ere bazuen burutan.»	(42)
oldoztu 'gogoeta egin, pentsatu'	«Detektibea apurtxo batez oldozketan gelditu zen.»	(25)
onginahi 'uste on, estimu'	«Mirenek, diru kontuetan eta jauntxokerietan sartzen ez denez gero, guztien onginahia irabazia dauka.»	(68)
ostalertsu 'ostalaria (fem.)'	«Eta zer iruditzen zaizu Pilar, ostalertsu ?»	(69)
osterako 'ateraldia, burutazioa'	«Galarreta erabat ilarraindu zen osterako honekin eta indar haundiagoz oldartu zitzaion detektibeari.»	(59)
partzuer 'partaidea'	«—Oso poz handia izango nuke, ni ere bilera horretan partzuer banintz...»	(100)
patar 'aldapa malkartsua'	«Bidearen zuloek eta patarrek ez zioten aurren eguneko aurpegi uzkurra ipintzen.»	(47)
printzel 'garbia, fina'	«...holako emakume printzel batek...»	(16)
punttalakurlo 'ximena, arduratsuegia'	«Rodriguez oso gizon zehatz eta punttalakurloa zen.»	(96)
sakerre 'tematia, setatia'	«Galarreta sakerre zegoen, zeinuka eta eskuei eragiten.»	(59)
salmahai 'mostradorea'	«Emaztekiak begiak apaldu baina, eta salmahai garbitzeari ekin zion.»	(65)



sasoi 'indar forma'	«Hura bai hura sasoia! Herriko pilotaririk onena ere ni ninduzun.»	(17)
sastakai 'labaina'	«Eskutitzak irekitzeko eta, erabiltzen diren sastakai dotore adamaskinatu bat zen.»	(26)
sen 'zentzua, adimena'	«...han zer-edo-zer okerrik gertatu izan zitekeela ematen zion senak. »	(13)
sits eta bits 'bebingo batean, segituan'	«Izebak gerturik zuen bazkari ederra sits eta bits jan ondoren, berriz ere Goizuetara.»	(97)
sotil 'zintzoa, jatorra'	«Neskatxa sotil , apal, azal zuria zen.»	(84)
sukar ustel 'gaixotasun bat (tifus)'	«Tartean beste arrebata bat izan genuen, baina sukar ustelak eraman zigun, bederatzi urte zituela.»	(17)
tarrapataka 'arin-arinka, arrapaladan'	«Eta erantzunaren zain egon gabe, gelatik irten zen tarrapataka. »	(47)
tati egin 'eman gabe eskaini'	«...itxaropenak eman eta gero kendu, eskaini eta tati egin. »	(137)
uhertu 'arretu, ilundu'	«Begiak nonbaiteko tristura ezkutuz uhertuta zeuzkala iruditu zitzaion Bidarti.»	(84)
urdailutsik 'baraurik'	«Holako auziak urdailutsik entzuteak kalte doblea egiten dik.»	(58)
usteak erdia ustel 'uste dena ez ohi da jazo'	«—Dionisio, usteak sarritan erdia ustel. »	(60)
ustekor 'fidakorra'	«Bazuen ostalariak bihotza irabazten zizun begirasun xalo, garbi eta ustekorra. »	(14)
usu 'ugaria, joria'	«Aurpegi luze, fin, klasikoa zuen eta ile usua , airoski uhineztatua.»	(15)
xaplakatu 'txalokatu'	«Galarretak berriz eseri eta izterrak bere bi eskubarrenez xaplakatu egin zituen etsipenez.»	(61)
zarpio 'horma berritzea, horma zuritzea'	«Solairuak eta zarpioak lan berriaren eskua salatzen zuten non-nahi.»	(81)
zarrastada 'zirrara'	«—Zuri ere zarrastada handia egingo zizun On Lorentzoren herioak, ezta?»	(69)
zertzelada 'xehetasuna'	«—Ea, ea, konta iezazkidak zertzelada guztiak.»	(95)
zimiko 'kezka, damua'	«Barne zimikoz ezin egonda, ordea, ni deitu bere gaiztakeria esateko.»	(137)
ziri sartze 'adar jotzea, engainua'	«Dena ziri sartze besterik ez zen, nonbait.»	(13)
zirt edo zart 'bebingoan, berehalaxe'	« Zirt edo zart erabaki bat hartu behar diat!»	(13)
zirtzilkeria 'huseria'	«Parte Zaharrean sartu eta zuen sabela edozein zirtzilkeriaz bete...»	(15)
zokomoko 'toki ezkutu oro'	«...bide aldeko zokomoko , oihan gailen eta Urumeako madurak ikusteko aukera egokia izan zuen.»	(45)
zoli 'ozena, fina, garbia'	«Kotxearen leihotik Jonen ahots zolia Basakabitik zetorren haizetxo irrikorrarekin nahasi zen...»	(48)
zuretik dator ezpala 'gurasoengandik, arbasoengandik	«— Zuretik dator ezpala. »	(17)